

Emakumeen Indarra

Maila	DBH 3 eta 4	Ikasgaiak	Balio etikoak, Gizarte
Denbora	2 ordu	Materiala	Pertsonai fitxak eta komikiak. Sorginlore.eus Komikiak Emakueen Indarra

Helburuak Konpetentziak

- Eguneroko komunikazioan islatzen den iruditegi sexista antzemateko, kuestionatzeko eta eraldatzeko gaitasunak indartu.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziak:
 - Arazoak konpondu: erronkak identifikatzeko, informazio esanguratsua antzemareko, eta eraldaketarako proposamenak sortzeko gaitasunak.
- Bizikidetzarako konpetentziak:
 - Tokiko eta maila globaleko erantzukizun sozialeko jokabidea eta ekitatearekin konpromezua.
- Ahoz eta ez-ahozko komunikaziorako eta komunikazio digitaleko konpetentziak:
 - Komunikazio hegemonikoa eta emakumeen diskriminazioan duen eragina zalantzan jartzeko gaitasuna.
 - Eguneroko pertsonen arteko komunikazioa eraldatzeko jarrera aktiboa hartu.
- Izaten ikasteko konpetentziak:
 - Autoezagutza: bakoitzaren praktikak eta beren eraginaren inguruko gogoeta.
 - Autobaieztapena: emakumeen indarrean eta aniztasunean oinarritzen diren irudi eta jokabide aukera ez hegemonikoak sortu.

Ekintzak:

- Pertsonaien inguruko banakako gogoeta:
 - Minutu pare batez eta inongo materialik eman aurretik, ikasle bakoitzak paper zati batean bere indarra zein den idazten du. Paper hauek ez dira jasoko edota besteen aurrean irakurriko.
 - Ikasle bakoitzari 6 pertsonaien profilak duten orri-markatzaileak emango zaizkio. Eredu horiek jarraituz bere profila garatuko du.
 - Sortutako profila eta hasieran idatzitakoaren indarraren artean egon ahal dan kontrasteari buruz hausnartuko da (banaka).
- Elkarrekin: Identifikatutako indarrak partekatu, indar fisikotik haratago doan indar kontzeptu zabalagoa osatzeko eta emakumeen inguruan dagoen "sexu ahularen" irudia desmuntatzeko.
- Komik tirak aurkeztu: irakasleak orri-markatzaileak erakusten ditu eta debatea bideratzen du.
 - Zer gertatzen da eszenan. Pertsonai bakoitzaren rola. Emakumeetaz ematen den irudia.
 - Normalean egoera hauek horrela bukatzen dira? Gure inguruan normaltzat jotzen da emakumeen irudi hau: ahula, gaitasun gutxiagokoa eta rol zehatz batzutura mugatua?

Taldeka komik tirak sortu: orri-markatzaileen eredu jarraituz, 3-4 lagunez osatutako talde bakoitzak eguneroko komunikazio egoera bat aukeratu eta islatuko du, era ez sexistan bideratuz.

Metodologia

- Partaidetza esanguratsua.
- Komunikazio ez bortitza.
- Entzumen aktiboa
- Konfidantzazko gune zurrak sortu.

Ebaluazio adierazleak

- Ikasleek pertsonen arteko komunikazioan irudi sexistak identifikatu eta kuestionatzeko gai dira.
- Ikasleek banakako eta taldeko indar era ahalbuntzaile eta ez hegemonikoak identifikatzen dituzte.
- Ikasleek ikastetxean komunikazio ez sexista erabiltzen dute.



Pertsonai fitxak eta komikiak



NORA ETXABE

Adina: 16 Urte Urtebetetzea: Otsailak 28

Ikasketak: DBH, marrazketa.

Gustoko du: Musika punk eta heavya. Lan mekanikoak eta artea.

Ez du gustoko: Azterketak eta etxekolanak

Indartzu sentitzen naiz nire kabuz inonre laguntzarik gabe gauzak egiten ditadanean



Ade Mariga


Adina: 18 Urte Urtebetetzea: Ekainak 19

Ikasketak: Batxilergoko azken urtean dago. Entrenatzaile personala izateko ikasi nahi du.

Gustoko du: Edozein kirol mota: korrika, igeriketa, pilota...

Ez du gustoko: Eurria eta hotza.

Indartzu naiz sentitzen naizen? Indartsue naiz. Ez al da luxua?

Linkak:

[Ade](#) [Nora](#) [Komikia](#)





EDURNE ALZAGA

Adina: 16 Urte Urtebetetzea: Urriak 12

Ikasketak: DBH, ingelesa.

Gustoko du: Orrazkera berriak probatzea. Lagunekin kontu kontari ibiltzea.

Ez du gustoko: Transfobia, homofobia eta halakoak.

Indartsua sentitzen naiz jendearekin tuturatsuegatik keldartzen ez naizenean.

ALISON MURPHY

Adina: 14 Urte Urtebetetzea: Apirilak 28

Ikasketak: DBH, euskara, pianoa.

Gustoko du: Mundua zaintzea. Berrerabiltzea, birziklatzea eta lagunei hala egin dezaten animatzea.

Ez du gustoko: Birziklatzen ez duen jendea. Azertu ingelesa duela esatea.


Indartsu sentitzen naiz munduarengatik geroz gero onak egiten dituzela jakitean. Baina indartsuago gero denak elkarrekin jifitzen bagara.



Linkak:

[Edurne](#) [Ali](#) [Komikia](#)





MARIA SEGUROLA

Adina: 19 Urte Urtebetetzea: Martxoak 7

Ikasketak: Abokatua izateko ikasketak Unibertsitatean.

Gustoko du: Legedia ikastea. Ordenagailuan serieak ikuslea.

Ez du gustoko: Pinpirin janztea.

Indartsuago egiater naiz geroz berriak ikastea ditudanean

AINARA ETXABE


Adina: 17 Urte Urtebetetzea: Apirilak 5

Ikasketak: Batxilergoko lehenengo urtean dago. Ingenieritza mekanikoa ikasi nahi du.

Gustoko du: Loradun soinekoak, lazoak, makilajea.

Ez du gustoko: Kontra eramaten dion jendea. Kolore beltza.

Indartsu sentitzen naiz igailuz begiratu eta nire burua mozte dudela konturatzean



Linkak:

[Ainara](#) [Maru](#) [Komikia](#)

